



## AKTA ZK.: 6/2019

2019ko martxoaren 21ean, 12:00etan, **Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzorde osoa** bildu da Vitoria-Gasteizen, horretarako deialdia egin ostean, eta gai-zerrenda honen arabera:

1. Ebatzi gabe dauden espedienteak ebazteko proposamenak.
2. Batzordearen aktibitateari buruzko informazioa GARDENA atarian.
3. Ebatzi gabe dauden espedienteak esleitzea
4. Galderak eta eskaerak.

### **BATZORDEBURUA:**

Javier Bikandi Irazabal jauna

### **BOKALAK:**

Maria Soledad Gutierrez Rodriguez andrea

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

### **IDAZKARIA:**

Maria Soledad Gutierrez Rodriguez andrea

1. Ebatzi gabe dauden espedienteak ebazteko proposamenak.

### **1-1 2019/000038 espedientearen ebazpen-proposamena**

Ondoren, batzordeburuak hitza eman dio proposamena aurkeztu duen kideari; eta aurretik bidali da proposamena batzordekideek azter dezaten. Aztertu ostean, aho batez onetsi da, Batzordearen 31/2019 Ebazpen gisa.

### **1-2 2019/000061 espedientearen ebazpen-proposamena**

Ondoren, batzordeburuak hitza eman dio proposamena aurkeztu duen kideari; eta aurretik bidali da proposamena batzordekideek azter dezaten. Aztertu ostean, aho batez onetsi da, Batzordearen 45/2019 Ebazpen gisa.

2. Batzordearen aktibitatearen gardentasuna.

Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordeak instruitu dituen erreklamazio-espedientei buruz GARDENA izeneko gardentasunaren atarian dagoen informazio publikoa

hobetzea erabaki da. Honako hauek zehaztu behar dira: espedientearen kodea, erregistro-eta ebazpen-datak, aurkezteko modua, erreklamatazilearen sexua, interpelatu den organoa, erreklamazioaren arrazoia, eskatutako informazioa, ebazpenaren emaitza, ezesteko, ez onartzeko eta bestelakoetarako motibazio legala eta ebazpenean anonimo moduan utzitako edukira sartzeko aukera izatea. Datu horiek guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira.

### 3. Ebatzi gabe dauden espedienteak esleitzea

Jarraian, batzordeburuak ebatzi gabe dagoen espedientea dagokion batzordekideari esleitu dio.

2019/000080	Maria Soledad Gutiérrez Rodríguez andreari
2019/000083	Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andreari

### 4.- Galderak eta eskaerak

Ez da eskaerarik egin, ezta galderarik ere. Beraz, batzordeburuak bilera amaitutzat eman du 13:00tan.

#### **Idazkaria**

**Maria Soledad Gutierrez Rodriguez andrea**

#### **Batzordekidea**

**Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea**

#### **Batzordeburua**

**Javier Bikandi Irazabal jauna**